

N-1ean soinu pantaila gehiago jarriko dira

PSE-EEri esker, Foru Aldundiko 2011 urteko aurrekontuetan diru partida zehatza dago

Julio Astudillo, PSE-EEko Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaileak eta Jesus Zaballos, Lasarte-Oriako alkateak asteartean eskaini zuten prentsaurrekoan, N-1 errepidean soinu ekiditeko pantaila gehiago jarriko direla jakin arazi zuten.

Izan ere, Julio Astudilloka azaldu zuen bezala, "Lasarte-Oriak kontaminazio akustiko maila handia pairatzen duen herrietariko bat da. N-1ak zaitua dago eta orain, gainera bigarren ingurubidea du".

Eskaerei erantzunik ez

Gipuzkoako Foru Aldundiak soinuaren mapa kontuan izanik Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepidean pantailak jarri bazituen ere Zabaleta, Loidi Kalea, Oztaran, Arranbide, Oria etorbidea eta Antxisu bailarako eremuak hauek gabe ageri dira oraindik.

Lehenengo pantailak jarri ostean, errebote efektua dela eta, soinuaren arazoa larritu egin zen pantailak ez zeuden eremu batzuetan. Bizilagunen keak entzun ostean, Lasarte-Oriako Udaltzarrak Foru Aldundira mozio bat bidali zuen eremu horietan pantailak jartzeko eskatzen, baina

alkateak jakitera eman zuten, "ez dugu erantzunik jaso".

Gainera, alkateak azaldu zuenez, Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ziren pantailak jartzeko erabiliko zuten egutegia eta eremuak ezagutzeko, baina ez zitzaizkion dokumentua bidali.

Aurrekontuetan partida

Gauzak honela, N-1 errepideak sortzen duen soinuaren arazoari irtenbide baten bila, Batzar Nagusietako PSE-EEko taldearekin harremanetan jarri zen herriko taldea.

PSE-EEko Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaile den Astudillok azaldu zuenez, "elkarlanari esker, emendakina jarri genuen Gipuzkoako Foru Aldundiko 2011 urteko aurrekontuetan soinu pantailak jartzeko zegoen partidari, 500.000 euro".

Emandakina onartua izan zen eta diru kopuru hori 150.000 eurotan igo da.

Astudilloren hitzetan, "emendakin horretan, gainera, Lasarte-Oriako eremu horiek izenpetuta agertzen dira eta horrek lanak egingo direla ziurtatzen du".

Gainera, nahiz eta data



Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepidean soinu pantaila gehiago jarriko dira PSE-EEren ekimenari esker.

zehatu gabe egon, "Gipuzkoako Batzar Nagusietako PSE-EE taldeak lan horiek lehenbailehen aurrera eramateko lan egingo du," adierazi zuten.

Izan ere, "arazoa pairatzen duten herritarren bizi kalitatea eta herritar guztiena hobetzen lagunduko dute pantaila horiek," azpimarratu zuen Batzar Nagusietako bozeramaileak.

Inbertsio gutxi

Baina Lasarte-Oriako alkateak prentsaurrekoan jakin arazi zuenez ez da pantailen eskaera erantzunik gabeko bakarra. Izan ere, Udalak eta auzo elkarteek egin duten ospitaleetarako autobusaren ibilbide aldaketaren eskaerari buruzko idatzirik ere ez du Udalak.

Honetaz gain, Lasarte-Oria 2010 urtean Foru Aldundiaren

inbertsio gutxien izan duen Gipuzkoako herria izan dela jakin arazi zuen, "Gipuzkoako batz bestekoa, biztanleko 790 euro izan bada, Lasarte-Oria 234 bat euro izan dira."


Eta hau guztiagatik, Lasarte-Oria Foru Aldundiarentzat bigarren mailako herria dela salatu zuen alkateak. "Biztanle kopuruan bederatzigarren herria izanik, tamalgarria da," adierazi zuen. •



El Diario Vasco
III. Argazkilaritza
lehiaketan saria
eskuratu du Aitzol
Etxegoienek/4-5

GIZARTEA /3

Lasarte-Oriako
Udalak
Eguberrietako
ekintzen
irakurketa
positiboa egin du



Louise Michel
taldearen eskutik,
Jokin Telleria
Europar zehar
ibili da /6



ANAIK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



Xenpelar Saria eskuratu du Ane Labakak

"Ametsen Lengoaian" sortak irabazi du Erretereriako Zapirain Anaiak Bertso Paper Lehiaketa

Lau Haizetara Euskaldunon Elkarateak, Xenpelar Bertso Eskolak eta Erretereriako Udalak antolatzen duten Bertso Paper lehiaketa eskuratu du Ane Labakak helduen mailan. 23 lan aurkeztu ziren guztira, batzuek bertsolari ezagunenak, baina epai mahaiaik Lasarte-Oriako bertsolariaren *Ametsen lengoaian* sorta aukeratu du. Gazteen mailan hainbat sari jasotakoa da Ane Labaka baina helduen mailako lehenengo sari garrantzitsua du.

Abenduaren 26an jaso zuen Ane Labakak Erretereriako Kulturgunean egin zen bertso saioan herri honetako bertso-paper lehiaketako lehen saria, helduen mailako XXII. Zapirain Anaiak saria, alegia.

"Ametsen lengoaian" izenburua zuen bertso sortagatik 500 euro eta oroigarria jaso zituen Labakak. Gazteen mailako XII. Ibon Zabala bertso-paper lehiaketa, berriz, Maddi Ane Txoperena hendiarraren "Euriaren hots amaigabea" bertso sortarentzat izan da eta, honek, 120 euro eta oroigarria jaso zituen.

Helduen Mailan, guztira, maila oneko 23 lan aurkeztu dira aurtan, epaimahaiko

Patxi Petrirena, Jose Luis Zabala eta Iker Goñik aitortu dutenez, batzuek bertsolari trebatuek bidaliak, gainera, eta guztien artean epai mahaiko hiru lagunak gustukoena Ane Labaka lasarteoriarraren lana izan da.

Beste bi sari eman zituzten helduen maila honetan, hain juxtu, bertso paper lehiaketetan sarri sarituak izan diren Aitor Albistur eta Nikolas Zendoari. Biak dira ezagunak bertso paper lehiaketetan parte hartzen dutelako. Aitor Albistur erretereriarrak jaso zuen bigarren saria, "Bizi artean hil" lanarengatik eta Nikolas Zendoia zarauztarrari accessit-a eman zioten, "Txoriak erruki" bertso sortarengatik.



Ane Labakak berriro ere erakutsi du bertso paperak idazteko duen trebezia Erretereriako sari nagusia irabaziz.

Ane Labakak oso gazte-
txoa zenetik idazten ditu bertso
sortak eta haur zein gazteen
mailako hainbat lehiaketa irabazi ditu azken

urteotan, esaterako Erretererian bertan Ibon Zabalaren omenez egiten den sariketa honetan hiru aldiz jarraian nagusitu zen gazteen mailan.

Dena den, helduen mailako lehen saria du lasarteoriarrak eta poz berezia hartu zuen saria eskuratuko zuela jakinarazi ziotenean. •

Ametsen lengoaian

Doinua: Eguzkiak urtzen du goian

Guztira hamar bertso dira. Hona hemen sortako lehenengoa, bigarrena eta azkenengo biak

Betaurrekoak utzi ondoren ohe ixkinako mahaian barneratu naiz gauero hemen hasi ohi dudana bidaian nahiz ta nekeak bere lekua badaukan nire soslaian indartsuago sentitu ohi naiz oheratzeko garaian... Dena errazago konprenitzen denez ametsen lengoaian beste behin ere galdu nahi nuke izarapeko paisaia eta betazal pisutsuekin marrazkiak egin nahian mundu berri bat sortzera noa nire gelako sabaian.

Seme-alabarik ez du galtzen pobre jaio den herriak atzeritarrak bertako gisa hartzen ditu atzerriak ez dira ikusten plañideraz betetako hilerriak negarrik egin gabe erditu ohi dira jaioberriak. Harritzen gara, Diario Vasco, Garak edota Berriak eguneroko ogi baititu pozezko eleberriak negua ere lorez betetzen duenez udaberriak zuri beltzean ematen dira koloretako berriak.

Guk ez ditugu munstro gisako etxeorrazak zutitu, ez da gertatu lehenago beste kutsadurazko istripu, agintariak erraustegien aurka ditugu gainditu, pegatinetan ez da ageri jada "AHT gelditu!"... Lurra maitatzen ikasi dugu, zerua da oskarbitu, aspaldi ez ditu ziklogenesi beldurgarriak erditu, tsunami edo lurrikarekin mila bihotz erditu... eta Saharan basamortuak loreak emaltzen ditu.

Ilusiorik ez da faltako nire gaurko testigantzan bertso hauetan esan dudana ez dut jarri nahi zalatzan. Dena eta guk nahi genukeena jarri ditzagun balantzan biak berdindu ta orekatu ditzakegun konfidantzan. Nire tokia egin ondoren utopien enparantzan ia galdu naiz erreallitate honetaranzko mudantzan, gaur joan da ametsak egi bihurtzeko esperantzan ta eguzkiak harrapatu nau ilargiarekin dantzan.

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Lasarte-Oriako Udalak Gabonetako ekintzen irakurketa positiboa egin du

Gabonetako haur parkea izan da arrakasta gehien izan duen ekintza

Gabonak amaitu dira eta Lasarte-Oriako alkateak, Jesus Zaballosek egun berezi hauetan burutu diren ekintzen errepa-soa egin du.

Alkatearen hitzetan, "gabonetako giro beroarekin bete nahi izan ditugu udalerriko kaleak eta horretarako argiteria egon da".

Apiaingarrien aldaketa "inguru ahalik eta erakargarriena lortzeko" egon dela eta energia aurreztea "kontsumo baxuko LED bonbillekin" helburu izan dela ere aipatzen du.

Eguberriak baino lehen

Egun berezi hauetarako motorrak berotzeko, 100m² izeneko antzerki lana eta Alboka, Musika Eskola eta Musike Teknereen kontzertuak egon zirela aipatzen du alkateak bere hausnarketan.

Gabonetako Jardunaldiak buruz, gainera, horrela mintzo da alkatea, "horietan gauza interesgarri eta erabilgarriak ikasteko aukera izan duzue".

Eta Emakumeen Zentro Zibikoan egindako ekintzei buruz ere, merienda eta mahai zentro ikastaroa, hitz egiten du Zaballosek.



Gabonetako haur parkean zeuden joko, makina, zezen mekaniko eta puzgarriekin ederki gozatu dute haur eta gaztetxoek.

Haur Parkea

Hausnarketa honetan, Gabonetako Haur Parkea arrakasta gehien izan duen ekintza dela nabarmentzen du. Izan ere, 8.300 bisita baino gehiago izan ditu irekita egon den egunetan.

"Parte hartze maila altua da kontuan izanda egun gutxiagotan irekita egon dela eta 2009an bertaratutakoen zifra berdindu dela," azaltzen du alkateak. Gainera, erabilitzaileen %92 herritarrek izan direla ere jakin arazten du.

Era berean, sarrera txanda ezberdinetan banatu dela gogora arazten du, "ilara luzeak ez sortzeko eta haur guztiek sartzeko aukera izateko".

Erregeen kabalgata

Jardueren amaiera gisa, ohiko Erregeen Kabalgata aipatzen du, "Kabalgataren Lagunen Elkarteak (MEGABA) antolatuta Udalaren laguntzarekin".

Eta aurtengo berrikuntza azpimarratzen du, ibilbidea Hipodromo Etorbidetik eta

Pablo Mutiozabal kaletik igaro baita.

Honetaz gain, Kabalgatan zuziak eraman dituzten taldeak, hala nola, Zentro Zibikoan emakume edo Zumaburuko Pastoralako boluntarioak ere aipatzen ditu.

Azkenik, alkateak eskerrak ematen dizkie, "bai jardueretan parte hartu duten pertsona guztiei eta baita horiek posible egin dituztenei" eta Lasarte-Oriako herritarrei 2011 zoriontsua opa die.

EUSKAL KARABANA Elikagaien bilketa

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkarteak Kideek Sahararen Aldeko Euskal Karabanarako elikagai bilketari ekingo dio gaur eta hilaren 29an, Urbil merkatal gunean amaituko dute.

Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamenduetara eraman nahi ditu: arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak.

Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko ikastetxeetan eta supermerkatuetan edukiontzia aurkituko dituzue. •

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOAN

Ikastaroetan izena emateko epea

Eguberrietako oporren etenaldiaren ostean, Emakumeen Zentro Zibikoak urtarrila eta apirila bitartean eskainiko dituen ikastaroetan izena emateko epea ireki du.

Hainbat ikastaro eta ekintza eskaintzen ditu Zentro Zibikoak Lasarte-Oriako emakumeentzat, Batuka, esku lanak, frantsesa, mantentze gimnasia, pilates, kantua edo tai-chi eta inauteriak gertu ditugunez, konpartsa prestaztea.

Interesatuak daudenak urtarrilaren 21a arte dute ikastaroetako informazioa eskatu eta inskripzioa egiteko goizez, 9:30etik 13:30era eta arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara. •

Etorkinek tokiko hauteskundeetan parte hartu ahal dute

Europako estatuetak batean, Norvegiar, Zeelanda Berriar, Txilen, Kolonbian, Ekuadorren, Paraguayan edo Perun jaio eta Estatuan bizi diren atzerritarrek maiatzaren 22an egingo diren hauteskundeetan bozkatu ahal izango dute.

Horretarako, betekizun batzuk bete behar dituzte eta urtarrilaren 15ean baino lehen hautesle-eroldan izena eman behar dute.

Europar Batasuna

Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jaioetako pertsonak udal hauteskundeetan bozkatu nahi dutenaren adierazpen formal egin behar dute.

Adierazpena udaletxean aurkeztu behar dute eroldako izen ematekin erlazionatutako izapideren bat egitera doa-

zenezan. Izen emate hori errazagoa izan dadin, 2007ko hauteskudeez geroztik bozkatzeko nahia agertu ez duten herrialde horietako herritarrei jakinarazpen personalizatua igorri die Hautesle-eroldaren Bulegoak

Nahiz eta jakinarazpena ez izan, adierazpena internet bidez ere egin ahal izango dute Estatistikako Institutu Nazionalaren egoitza elektronikoko argitaratutako AIZri lotutako ziurtagiri elektronikoa badute.

Norvegiako herritarrek

Norvegiako herritarrek egoitza baimena izateaz gain, modu legalean eta etenik gabe bizi behar izan dira Espainian gutxienez hiru urtez.

Gainera, bozkatzeko dagokien udalerrian izan behar

dute etxebizitza eta bertan erroldatuta egon behar dira. Era berean, atzerritar egoiliarren hauteskunde zerrendetan izena eman behar dute.

Beste herrialdeak

Gainerako herrialdeetan jaioetako pertsonak bozkatzeko eskubideaz baliatzeko, Espainian bizitzeko baimena izan behar dute eta hautesle-eroldan izena emateko eskaera egin behar dute.

Horretarako, aurreko bost urteetan modu legalean eta etenik gabe bizitzen egon behar izan dira.

Honetaz gain, bizi diren udalerrian, bozkatu ahal izango dutenean, erroldatuta egon behar dira.

Izen emate horiek guztiak dagokien udaletxean eskatuko dituzte. •



Skate, roller eta bike-ak gazteen gozamenarako

Lasarte-Oriako kale hezitzaileek herriko haur eta gazteek urteari amaiera ezin hobea emateko asmoz, skate, roller eta bike, hau da, patinete, patin eta bizikleta erakustaldia antolatu zuten, abenduaren 31ean, herriko skate parkean.

Giro onean herriko 30 bat haur eta gaztetxo hurbildu ziren ekitaldira, hezitzaileek jakin arazi dutenez.

Hiriko kulturaren barruan dauden hiru kirol hauetan egin daitezkeen truku desberdinak ikusteaz gain, gazteek graffiti margolarien lanaz eta street dance dantzarien saioaz gozatu zuten.

Eskekerrak eman

Era berean, ale hezitzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ekitaldian parte hartu zuten guztiei. •

“Argazki batek zure bizitzaren une konkretu bat gordetzen du”

El Diario Vasco III. Argazkilaritza Lehiaketan bigarren saria eskuratu du lasarteoniatarrak

Argazkilaritza bizitzeko eta inguru sentitzeko modu bat da. Hobby bat izateaz gain, bizimodu bat ere bada. Asko alifizioz hasi dira mundu honetan eta azkenean, bere ogibidea ere bihurtu dute. Kasu hauen artean da Aitzol Etxegoien lasarteoniatarrak. Aspaldi hasi ziren argazkilaritza munduan. Ikastaro baten bidez argazkilaritzaren oinarriak ezagutzen hasi, gustuak eduki eta egun bere bizitzaren erdigutuan bilkatu da argazkilaritza. Mundu analogikotik digitalerako aldaketa ere bizi izan zuen.

Ixaso MORENO
U rte herriko egutegiko argazkiak adierazteko argazkilaritza lehiaketa antolatzen du El Diario Vasco egutegian. Aurten 2004ko udaberrikoa da. Argazki digitalak egiten hasi nintzenen alera nuen lehenengo argazkilaritza da hau.

Zer zait egiten zenuen?
Mendian asko ibiltzen naiz eta gehienetan kamera eraman ten dut nirekin zer edo zer erabiltzeko erabiltzen. Hain justu, apirilari dagokion orrialdean jartu dute Etxegoien herritarrek egindako argazkia. Gu berarekin bildu gara, argazkilaritzaren mundu hobeto ezagutzeko asmoz.

Nola oti zitzaizun El Diario Vascon antolatzen duen lehiaketan parte hartzea?
Lehiaketa hau aurreik ezagutzen nuen, hirugarren urtean egin dute, eta ni bigarren aldiz arkitzen naiz.

Lehiaketa honek oso berrera ona du Gipuzkoa mailan eta sari potolok ematen ditu. Gainera nik egiten dudun argazkilaritza paisajekin, erlatibo handiz dauka eta haren Gipuzkoako paisajek zuten giti nagusi.

Zin argazkilaritza lortu duzu bigarren sari horri?
Lehiaketako bigarren saria lortu duen argazkilaria izan da. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Beste lehiaketa batzuetan parte hartu al duzu?
Dexentelan aurkeztu naiz. Urte mordoan darazatik argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.



Golf plaza 4 behean, Aizobakarren Ander. Gartziazindarekin sortu zuen dulea urte bete Aizobak. Espiritho Estudioa.

Zuk ateratako argazki bat milaka alditz errepikatu itxustek ikaragarritzako poza ematen du

Zer sentitu zenuen irabazle-tarikoa bat zu zihela esan zizutenen?
Jesus Kristoren poza hartu nuen, lehiaketa honetara aurreratu naitzen bigarren aldiz eta oraingoan, bigarren saria eskuratu dut.

Zure beste lanen bat al duzuz?
Euskararen Maratoiko azken egutegi honetaz gainera izugarrizko tirada izan du, milaka ale ateratu dituzte Gipuzkoan zehar banatuzko.

Beste lehiaketa batzuetan parte hartu al duzu?
Dexentelan aurkeztu naiz. Urte mordoan darazatik argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

eskaintzen dizu. Zure bizitzako momentu konkretu bat, sment hori, gordetzeko aukera ematen dizu.

Paisai bat edo pertsona bat izan daitelke, hementik urte batzuk barru aldatuta egongo dena, baina zuk garai horretako irudia gorde duzu, mantendu duzu. Ikaragarritzako momentu bateko irudi hori gordetzeko eta beti oroitzea izateko aukera eskaintzen dizu.

Paisio hau zure ogibide bihurtu duzu gainera...
Orain dela urte bete, Ander Gartziazindarekin batera, Argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Argazkilaritza pasio bat da zuretzako, ezta?
Bai, aspalditik nabari mundu argazkilaritza munduan lotuta ikusten dut.

Beste lehiaketa batzuetan parte hartu al duzu?
Dexentelan aurkeztu naiz. Urte mordoan darazatik argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Non daukazu estudioa?
Aizobakarren daukagu, Golf Plaza 4 behean.

Zer egiten duzue bertan?
Estudioko argazkiak egiten ditugu; modelozkoak, liburuetako argazkiak eta batzuetan publikoak, baina zuk garai horretako irudia gorde duzu, mantendu duzu. Ikaragarritzako momentu bateko irudi hori gordetzeko eta beti oroitzea izateko aukera eskaintzen dizu.

Nola hasi zinen argazkilaritza mundu honetan?
Manuel Lekuona kultur etxeko laborategian ikastaro bat egin zuten eta bertara animatu nintzen. Estudio txiki bat erabiltzen ikasiko, eta hor hasi nintzen hainbat arlo ikasitako argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Estudioa sortu baino lehen ere lanean ibili zinen argazkilaritza bezala, ezta?
Otzialkirekin aurreratu hasi nintzen, baina 24 urtekin hasi nintzen argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.


Estudioa sortu baino lehen ere lanean ibili zinen argazkilaritza bezala, ezta?
Otzialkirekin aurreratu hasi nintzen, baina 24 urtekin hasi nintzen argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Isorikoko kontantzen dibutzen argazki erreportajea da argazkilaritzaren munduan gehiena gustatzen zaidana

Orduan erabaki nuen argazkilaritza bizi nahi nuela. Baina, aldi berean orduan ere konturatu nintzen erreportaje horietan ezin nintzela bizi. Beraz argazkilaritza komertziala egitea erabaki nuen, eta lan honetaz denborara uzten nintzen. Argazki hori argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Latinoamerikan zein tokitan ibili zinen zortzi hilabete horietan?
Argentinan, Txilen, Bolibian eta Peru ibili nintzen. Beraz, erreportaje ekarri nintzen. Lehenengo Argentinako krisialdiaren ondoren, fabrika

24 urterekin zortzi hilabeterako Latinoamerikara joan nintzenen erabaki nuen argazkilaritza bizi nahi nuela.
Nire hobbia nire lanean bilakatzeko ilusioarekin bueltatu nintzen



El Diario Vasco egutegian argitaratu duen 2011. urteko egutegian apirilko orrian Aitzol Etxegoien argazki hau ikusi daitelke.

Orain dela urte bete ireki zenuen Espiritho, baina nola jaio zen proiektua?
Ander Gartziazindarekin batera, Argazkilaritza munduan amantzen duen argazkilaria da.

Zure artebatak handia izan behar du...
Ikaragarria. Hasiera batean txuri beltzeko argazkiak eta diapositibak lantzen hasi nintzen eta horiek ez daukat kontatzen.

Estudioko argazkiak eta erreportajeak ba al daukate zerikusirik?
Digital munduak argazkiak aukera ematen ditu. Bada, berritu egin behar du argazkiak, baina hori daude.

24 urterekin zortzi hilabeterako Latinoamerikara joan nintzenen erabaki nuen argazkilaritza bizi nahi nuela.
Nire hobbia nire lanean bilakatzeko ilusioarekin bueltatu nintzen

Jokin Telleria Bateria jolea eta kultur programatzailea

“Asko ikasi dut Berlinera joan-etorrian”

■ Louise Michel Tour 2010 bira egin du taldeak azaroan eta abenduan ■ Zazpi kontzertu eskaini dituzte Alemania, Txekia eta Eslovakian ■ Taldearen etorkizuna finkatzen ari dira une honetan

Berlin, Praga, Bratislava eta inguruko beste zenbait hiritan egon da Jokin Telleria bateria jolea Louise Michel taldearekin. Azaro amaieran eta abendu hasieran bi astetako joan etorria egin dute Alemania, Txekia eta Eslovakiara. Guztira zazpi kontzertu eskaini dituzte lokal txikietan eta esperientzia oso interesgarria izan dela esan digu Telleriak, hain juxtu taldearen etorkizuna eta norabidea finkatzen ari diren une honetan.

JON ALTUNA

Louise Michel taldean jotzen du bateria Jokin Telleria lasarteoriatarrek 2010eko martxotik. Taldean, eslovakiar eta txekiar bi dira, irundar, zarauztar eta lasarteoriatarrek batera, eta hauei esker egin dute Alemania, Txekia eta Eslovakiara joan etorria. Marek taldekide eslovakiarra hamar urtez bizi izan zen gainera Berlinen eta hiru kontzertu eskaini zituzten hiri horretan.

Talde 2008an sortu eta hemen ondo jotzen ari zirela ikustean, erdi brometan esaten zieten bi kanpotarrei noiz joango ote ziren euren herrialde-tara. Dei batzuek egin eta orain izan dute aukera hainbat kontzertutan jotzeko.

"Louise Michel Tour 2010" interesgarri hau Donostian hasi eta bukatu zuten: azaroaren 19an Leize Gorrian jo zuten eta abenduaren 11n Altxerrin, eta tartean, 26, 27 eta 28an hiru kontzertu Berlinen, azaroaren 30ean Pragan, abenduaren 1ean, Lanskroun Michael gitarrajole txekiarraren jaioterrian, 2an Eslovakiako Bratislava hiriburuan eta bukatzeko azkena berriro Txekian Ceske Budejovice Budweiser garagardoa egiten delako oso ezaguna den hirian.

Bost mila kilometro

Jokin Telleriak adierazi digunez pozik itzuli dira eta asko ikasi dute: taldeko bost kideak elkarrekin ibili dira 12 egunetan furgoneta batean, 5.000 kilometro egin dituzte eta kontzertu interesgarriak emateaz gain, euren arteko harremana oso ona izan dela azpimarratu du lasarteoriatarrek.

Bidaia, taldearen etorkizunarentzat mugarrira ere izan daitekeela uste du bateria joleak, dauzkaten desberdintasun musikalak jorratzeko aukera ere izan dute eta.

Berlinen ostatu merke bihurtu den etxe okupatu

batean lo egiten zuten. Bestela, lagun "jatorren" etxeetan eta aterpetxe batean.

2008an sorturiko taldea

Jokin Telleriarekin batera, beste lau lagun dira taldean. 2008an zen sortu zen Zarautzen, teklak eta gitarra jotzen dituen Marek eslovakiarra eta Michael gitarra jole txekiarra elkartu zirenean. Jaione Galdos abeslari eta gitarrajole irundarra sartu zen gero taldean, Patxi Agirre baxujole zarauztarra ondoren eta azkenik Jokin Telleria lasarteoriatarra iazko apirilean.

Bira honetako kontzertuak oso ezberdinak izan zirela kontatu digu Telleriak. Guztietan 40-50 bat lagunuen aurrean jo dute, baina esaterako Berlinen bat taberna turistikoko batean eskaini zuten beste bi talde eta hiru DJrekin, hiri erdian, jende asko zebilen tokian; beste bat, kabaret show baten ondoren Bieloerusiaren areto batean, edota azkena etxe okupatu batean, talde heavy baten aurretik.

Kontzertu akustikoa

Kontzertu bereziena da Jokin Telleriaren iritzi "politena", hilaren 28an Berlingo Joes Bar-ean eman zutena izan zen. Ez zegoen Louise Michelen bira honetan aurreikusia, azken orduan sortu zen aukera. Tokirik txikiena izan zen, 25 bat pertsona sartzen ziren, eta jabeak ez zuen ezta bateriak jotzerik nahi. Baxurik gabe jo zuten akustikoen eta Jokinek kaxa (danbor) eta plater bakarrekinekin soilik. Honen iritzi, bikaina izan zen. Aurretik poesia errezitaldian parte hartu zuen kanadar bikote batekin, jam sesio moduko bat egin zuten, White Horse abestiaren bertsioarekin. "Poesia errezitaldian munduko txapeldunak ziren; Birako momenturik onena izan zen" Jokinen iritzi.

Europar hotz bolada hasi zenean abiatu ziren Berlinerrantz, azaroaren amaieran, eta errepideetan ez dute arazorik izan, baina nabaritu dute hotz



Louise Michel taldeko Patxi, Marek, Jokin, Jaione eta Michael Pragan. Behean Berlingo Joes Bar-eko kontzertuan.



handia. Jokinen pasadizo bitxia ere izan zuen: materiala furgonetan zuten "zero azpitik 5 gradutan edo", lokalera sartu eta berehala hasi ziren jotzen eta bonboetako bat puskatu egin zitzaion, bateria jotzen hasi zenetik "lehenengo aldiz". Gaizki pasa zuen: "hurrengo kontzertuetan instrumentuak lehenago sartzen genituen bada ezpada".

Elektro-folka

Dena den, hemendik kanpo kontzerturik eman gabe zegoen Jokin Telleria eta oso pozik dago egindakoarekin: "Asko ez dut bidaiatu eta niretzat "esperientzia" handia izan da". Louise Michelek bi formatu ditu, bat akustikoa, eta beste elektriko. "Bira honetan asan digute

elektro-folk fusion egiten dugula", esan digu barrezka Jokin Telleriak, "etiketatzea beti da zaila. Folk, gitarra akustikoak erabili eta musika melodikoa jotzen dugulako agian..." Taldea ezagutu nahi izanez gero, www.myspace.com/louisemichelband helbidean taldeari buruzko informazio gehiago jaso daiteke.

Momentuz grabatuta duten bakarra maketa bat da. Bateria elektronikoarekin grabatu zuten Jokin hasi aurretik eta beraz, ondoren, asko aldatu da euren musika: "Itzuleran norantz joan nahi dugun hitz egiten aritu gara: oso harreman ona daukagu gure artean, hainbeste egun elkarrekin eta ez dugu eztabaidarik izan, baina musikalki baditugu dife-

rentzia batzuek, oso desberdinak gara bostak eta alde horiek leuntzen ari gara".

Oreindik eta Louise Michel taldeak partekatzeko lanak ditu Jokin Telleriak. Biak "oso talde ezberdinak dira" aitortzen du, baina bietan oso gustura ari denez ez da arazo: "asteen zehar ia egunero ensaiatzen dut, batekin edo bestearekin, batez ere Zarautzera joatea kostatzen zait baina hain gustura nabilenez..."

XIX. mendean Parisen

Askok pentsatzen dute Jaione abeslaria dela Louise Michel, baina ez da horrela. Agirre baxujolea da ideologiaren anarkista xamarra, eta berak proposatu zuen Louise Michel, izena: "behartsuentzat lapurtzen zuela dio berak, eta anarkisten bandera beltza lehen aldiz aineratu zuela".

Pariseko alde zaharrean egin zen ezaguna XIX. mendeko emakume indartsu hau eta bira honetan bertan jo nahi zuten. Hiriburuko alde zaharrean bizi da Lucio Urtubia anarkista nafar ezaguna eta hain juxtu bere etxean jarri du "Louise Michel" kultur gunea, "bisitatu nahi duten guztientzat beti irekia dagoena".

Txekiatik bueltan Parisen jotzeko asmoa zuten, deitu zioten Luciori, baina kanpoan zen. "Mundu osoan zehar ematen ditu hitzaldiak eta ez genuen harrapatu. Pena bat izan da honelako leku batean ez jotzea. Izugarria izango litzateke". Hurrengo batean izan beharko du. •

“Musikalki diferentziak baditugu, desberdinak gara bostak eta norantz joko dugun aztertzen ari gara

Egunero

Erakusketa

DENBORAREN MUGETAN, Migel Angel Oriberen erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Igandea, 16

Zinea

MIDAS ERREGAAREN ALTXORRA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ

Larunbata, 22

Antzerkia

LA ÚLTIMA CENA izenburua duen Ignacio Amestoyren antzerki lana eskainiko du Teatro de la Guindalera taldeak. Sarrera 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



Soldaduek Iraken erabili zituzten arma bereziak ezagutzen

LOS HOMBRES QUE MIRABAN FIJAMENTE A LAS CABRAS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Bob Wilton kazetaria Irakera bidali dute. Lyn Cassady soldaduaren kasua ezagutzen duenean, bere bizitzako istorioa lor dezakeela pentsatuko du. Garuna arma gisa erabiltzeko sistema asmatu du Cassadyk.

OSTEGUNA 13
MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 21:30EAN.
SARRERA 4,30 EURO

Igandea, 23

Zinea

LA TRAVESÍA DEL VIAJERO DEL ALBA filma eskainiko dute haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Osteguna, 27

Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik, Ostegun zinea atalean. Sarrera 4,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean



Ostirala, 28

Kontzertua

OBOE ETA PIANO kontzertua, C. Alvarez eta A. Saez-en eskutik, Danok Kide elkartearen VI. Musika Topaketan barruan. Ama Brigitarren komentuan, 19:30ean. Doan

Larunbata, 29

Antzerkia

NORK IKUSI DU DULTZINEA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatroko lagunek. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ



Igandea, 30

Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE filma eskainiko dute haurrentzat. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.



Manuel Lekuona kulturetxea

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 koordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen lagutzeko bideratuko da.

Kukukaren egutegia

Kukua Antzerki eta Dantza Eskolaren aldeko egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbela belar denda, Urruzola merzerian eta Basaundiko Denda-Berrin.

Alboka Txiki Abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasiko ditu, urtarrilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegu Zumaburuko eliza

Euskal Herriko Mus txapelketa

Euskal Herriko 3. mus txapelketa abian da. Lasarte-Oriako kanporaketa urtarrilak 15ean jokatu da Xirimiri elkartearen arratsaldeko 15:30etatik aurrera.

Izen-ematea egunean bertan izango da eta bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira.

Partehartzaile bakoitzak opari bat jasoko du eta txapelketa irabazleentzat sari galantak egongo dira.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanezkerok www.euskalherrikomustxapelketa.com -en izango du.



azpiko lokalean egiten da, asteleheneratik 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Alboka Abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta oste-

gunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Aterpeko Loteria

Aterpea merkatarien elkarteak jakin arazten du, jokatutakoarekin saritua izan den Loteria

Nazionala hurrengo asteko astelehen, asteazken eta ostiralean, 17:00etatik 19:00etara ordainduko dela Bideo Lagunak (Tien 21) denda.

LOKE-ko saskiak

LOKE-k Eguberriko Loteriaren zozketatzen zituen saskien zenbaki irabazleak honako hauek dira: Aginaga sagardotegian lau pertsonentzako afaria, 9.250 zenbakia (mahai teniseko atalak saldua), eta Txartel txokon lau afariak, 0.147 zenbakiari dagozkio (atletismoko sailak saldua). Sarituak Manuel Morales-ekin harremanetan jarri behar dira, 656 715 700 zenbakira deituz.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidali edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Erregeekin egon eta eskutitza emateko irrikitan zeuden Andatza plazan bildu ziren haurrek.



Haurrek bidalitako eskutitzak irakurri zituzten Meltxor eta Gaspar erregeek eta ostean, goxokiak bota zituzten.

Erregeen bisita azkarra

Megaba elkartearen eskutik, Kabalgatako ibilbide zaharra egin zuten Errege Magoek

Osteguna egun berezia izan zen haur askorentzat eta lasai daude urtean zehar txintxo ak izan eta ekialde urruneko erregeek opariak ekarri dizkietelako.

Asteazkenean, ordea, haurrek urduri ikusi genituen, erregeak ikusteko aukera zutelako. Hauek oso lanpetuak ibili ziren herri batetik bestera eta, hala ere, Lasarte-Orian ere egon ziren.

Eskutitzak biltzen

Goizean, gainera, Errege magoak Atsoabakar erresidentzian egon ziren. Bertako lagunei bisita egin zieten eta opariak banatu.

Bitartean, haien laguntzaileek haurrek eskutitza egiteko

tailerra antolatu zuten, Sagar-dotegi kalean. Hala ere, ume txo ugari izan ziren etxetik gutuna egin eraman zutenak eta horiek ere bildu zituzten ekialdeko erregeen laguntzaileek.

Kabalgata

Arratsaldean, euria egingo zuela zirudien arren, tantatxo batzuk besterik ez zituen egin eta honela, Errege mago, zein laguntzaileak herriko kaleetatik barrena ikusi genituen.

Andoainetik sartu ziren hiru erregeek haien laguntzaile eta zuziri emaleekin.

Ibilbidean bi gelditu egin zituzten bata Biyak Bat elkarrean eta bestea Brigitarren komentuan. Azken honetan,

Brigitarren jaiotzako haurrek opariak utzi eta mojei bisita egin zieten erregeek.

Ostean, Kale Nagusia utzi eta Kabalgatako ibilbide zaharra zena egin zuten, hau da, Hipodromo etorbidetik Pablo Mutiozabal kalera, ostean Iñigo de Loyola kalea hartu Geltoki kalean bukatzeko eta Hipodromo etorbidetik gora Andatza plazara egin zuten Donostiako etorbidetik.

Andatzara iristean, plazara hurbildu ziren herritarrek agurtu zituzten hiru erregeek. Gainera, Meltxor eta Gasparek umeen eskutitzak irakurri eta goxokiak bota zituzten. Jarraian, haurrek oholtzara igo ziren Erregeei eskutitzak eman eta nahiak esateko. •



Ama Brigitarren komentuko jaiotzako haurrek opariak utzi zizkieten errege eta mojei ere bisita egin zieten.



Erregeen laguntzaileek goizean haurren eskutitzak biltzeaz gain, eskutitzen tailerra antolatu zuten.



Herritar ugari izan zen Lasarte-Oriako erdigunean Erregeen kabalgata ikusten. Argazkian, Geltoki kalea.

amaraun ludoteka

Eskulanak, lorezaintza, txotxongiloak, mozorroak, ipuin kontaketak, pijama festa...

GUAY pasako dugu!

Ttakun Kultur Elkartea (Geltoki 4, behea) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com